

ANTZERKIA. Antzezlanaren gaztelaniazko bertsioarekin Espainiako antzerki zirkuituan sartzea lortu nahi dute

Hikak Elvira Lindoren 'Oihanaren legea' estreinatuko du ostiralean Tolosan

Egungo gizartearen mito erromantikoak zalantzan jartzera iristen den emakume baten istorioa kontatzen du obrak



GARI GARAIALDE
Lierni Fresnedo eta Mikel Laskurain aktoreak, *Oihanaren legea* antzezlanean.

OLATZ BEOBIDE

Zuzendari laguntzailea

«Halako batean, protagonista konturatzen da beti gizon antzekoak bilatu eta aurkitzen dituela»

MIKEL LASKURAIN

Aktorea

«Mugak gaindituko dituen ikuskizun bat egin nahi genuelako aukeratu dugu egile ezagun horren lana»

osoan; Indi amoranteak, berriz, bidaia exotikoak egiten ditu. «Baina harremanak aurrera egin ahala, biak nahikoa antzekoak direla konturatuko da Guadalupe». Hala, beste baten bila abiatuko da emakumea, eta Toni d'Apello piano jotzaile argentinarra aurkitu du —hura ere Laskurainek jotzen du—. Hirugarren gizonezkoa aurreko bien aldean zertxobait ezberdina dela aurreratu digu Beobidek zuzendari laguntzaileak, «baina, azken finean, bilatzen eta aurkitzen dituen gizonezko guztiak nahiko antzekoak dira».

Elkarren antza duten gizonak zirelako proposatu omen zuen obraren egileak, Elvira Lindok, gizonezko pertsonaiak aktore berberak egitea. Arrazoi horregatik, Mikel Laskurain aktoreak jotzen ditu *Oihanaren legea* antzezlaneko gizonezko pertsonaia guztiak.

Ainhua Oiarzabal | ERRETERIA

Azken urteotako joera aldatu egin du Donostiako Hika antzerki taldeak: euskaraz ez ezik, gaztelaniaz ere eskainiko baitu bere azken lana, *Oihanaren legea* antzezlan. «Euskaraz bakarrik egitea ez da nahikoa ikuskizun handi batentzat. Dirurik ez galtzeko merkatu zabalagora jo behar da, eta erdaraz ere eskaini», azaldu dio EGUNKARIARI Mikel Laskurain Hika taldeko aktoreak, baina Euskal Herrian %95 alditan euskaraz eskainiko dutela azpimarratu digu. Erretereriako Kultur Etxean egin dizkigu adierazpen horiek, Lierni Fresnedorekin batera antzezlanaren entsegatzen ari zen bitartean. Bi aktoreok dira *Oihanaren legea* obrako protagonistak, eta Olatz Beobide zuzendari laguntzailearekin batera ari dira Ritxi Lizartzak euskaraturiko Elvira Lindoren testua erreparatzen. Beobidek lagundu dio obraren zuzendari Jordi Mesalles euskarazko bertsioa zuzentzen.

Guztira, ia hiru hilabetez jardun dute Hikako kideek obraren bi bertsioak lantzen.

Laskurainek esandako asmo horrekin erabaki zuten Elvira Lindo idazle espainiarrak antzerkirako propio idatzi duen lan bakarra taularatzea: «Mugak irekitzeko ikuskizun bat egin nahi genuenez, kasu honetan Espainiara irtekeko, aukeratu dugu egile ezagun horren obra komiko hau». Komedia maiz erabiltzen du Hika taldeak, eta jendearengana iristeko bide egokia dela deritzo.

Oihanaren legea antzezlan ostiral honetan, hilaren 11n, estreinatuko dute, Tolosako Leidor aretoan. Gaztelaniazko bertsioa, berriz, Huescako antzerki ferian estreinatuko dute, maiatzaren 26an.

Hiru pertsonaia aktore bakar batek jokatuak

Ikusleek ordu eta erdi «atsegin eta dibertigarria» igarotzea da antzezlanaren erronka nagusia. Horretan, pertsonaien arteko

elkarrizketa mamitsuek lagunduko dute: «Guadalupe, Ricky eta Indiren arteko elkarrizketetan hitz joko asko daude —hiru pertsonaia horiek dira antzezlaneko protagonistak—; umorea horretan datza», azaldu digu Olatz Beobide zuzendari laguntzaileak. Antzezlaneko istorioaren berri eman digu jarraian: «Hamar urtez senar-emazte diren Guadalupe eta Rickyren go-

rabeherak kontatzen ditu obrak. Nola aspertzen diren, nola interes ezberdinak dituzten ageri da bertan. Emaztea, zorionez, kalera irtengo da eta beste gizonezko bat topatuko du. Hor hasiko da haren abentura».

Gizonezko pertsonaia horiek oso ezberdinak dira itxuraz: Guadalupe senar Ricky etxe zuloan sartuta egoten da egun

MEZUA

Nork bere bidea egiteko filosofia

«Kontsumismoa eta mitologia faltsu erromantiko eta sinpleak helburu dituen gizarte honetan, Guadalupe konturatuko da limurtzeko edo limurturik sentitzeko duen gogoak gizonezkoen egozentrismoarekin egingo duela topo», dio obraren zuzendari Jordi Mesallesek, Elvira Lindok idatzitako antzezlanaren abiapuntuari buruz. Hala, «gizon guztiak berdina dira» esan eta gero, antzezlanari izena ematen dion *oiha-*

naren legea filosofia bere eginda, biktimaren rola alde batera utzi eta berak maitatu dituen gizonen moduan jotzen hasiko da Guadalupe, Hika antzerki taldearen azken lanaren protagonista.

«Besteengan pentsatzeaz gainera, nork bere buruan pentsatu behar du, bakoitzak hartu behar ditu bere erabakiak». Horixe da, Mikel Laskurain aktorearen arabera, obraren gakoa. «Hau da, mugitzen ez bazara, azkenean, atzean gelditzen zara», gaineratu dio antzezlanaren zuzendari laguntzaile Olatz Beobidek *Oihanaren legea* antzezlanak iradokitzen duen mezuari buruz.